

Uztailaren 1ean aldatu egingen da botikako sendagaiengatik ordaindu beharrekoa

Zenbat ordaindu behar dut botiken truke?

	Ordaindu beharra	Errezetetako kodeak
Pertsona aktiboak		
Urtean 18.000 €-tik beherako errenta dutenak	%40	TSI003
Urtean 18.000 €-tik 100.000ra bitarteko errenta dutenak	%50	TSI004
Urtean 100.000 €-tik gorako errenta dutenak	%60	TSI005
Pentsiodunak		
Urtean 18.000 €-tik beherako errenta dutenak	%10 Gehienez ere 8 € hilabetean	TSI002
Urtean 18.000 €-tik 100.000ra bitarteko errenta dutenak	%10 Gehienez ere 18 € hilabetean	TSI002
Urtean 100.000 €-tik gorako errenta dutenak	%60 Gehienez ere 60 € hilabetean	TSI005
Beste talde batzuk		
Langabezi saririk gabeko langabeak	Ez dute ordaintzen	TSI001
Integrazio sozialeko errenta dutenak	Ez dute ordaintzen	TSI001
Kotizazio gabeko pentsioa dutenak	Ez dute ordaintzen	TSI001
Sindrome toxikoa dutenak	Ez dute ordaintzen	TSI001
Desgaitasunen bat duten pertsonak (LISMI)	Ez dute ordaintzen	TSI001
Lan istripuen eta lanbideko gaixotasunen ondoriozko tratamenduak	Ez dute ordaintzen	TSI001

Salbuespenak:

- Aportazio murriztuko medikamentuetan, publikoarentzako salmenta-prezioaren %10 ordainduko da, eta gehienez 4,13 €, gaixoa edozein taldeetako delarik ere botiketarako aportazio taldeei dagokienez (aportaziorik gabeko taldeetakoak izan ezik, horiek ez baitute ordaintzen).
- Gaixoak ez du deus ordaindu behar produktu dietoterapikoetarako. Dekretuak dioen bezala, noizbait arautegia garatuko da haietarako aportazioa erabakitzeko.

Nolakoak izanen dira errezetak?

Behin-behinekoz, daudenak bukatu arte, orain artekoak bezalakoak: gorriak pentsiodunentzat, eta berdeak aktiboentzat. Geroago, zuriak izanen dira.

Noiz eta nola itzuliko didate sobran ordaindu dudana?

Goiko mugatik gora ordaindutako dirua itzuli egingen da, gehienez sei hileko epeetan. Prozesua eroso izanen da, eta ahalik automatizatuena. Itzultzeko eskubidea duten taldeetako pertsonak **hobe dute ticketa eta errezetaren jarraibideen orria gorde (edo errezetaren fotokopia), edo farmaziaren faktura**, gaixoaren datuak dituenak.